Debabarrena

Garapen Iraunkorra eta Turismoa - Desarrollo Sostenible y Turismo

| N.° 10. zenbakia | Diciembre 2008ko Abendua |

# Itziar Sapsootham eibartarra, ingurumena hobetzeko ideia lehiaketaren irabazlea



Ekainean ireki zen lehiaketa honek, dagoeneko badu irabazlea. Guztira 15 proposamen jaso dira, denak ingurumena hobetu eta zaintzera bideratuak eta ondorioz, biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzera zuzenduak.

Epaimahaia zortzi udalek eta Debegesak osatu dute eta lehenengo saria, Itziar Sapsootham eibartarrari eman diote. Itziarrek aurkeztutako ekimenaren helburua hiritarrei erosketa-ohituren inguruko kontzientzia piztea eta erosketa iraunkorra egiteko informazioa eskaintzea izan da; baita, tokiko produktuen erosketa sustatzea ere. Helburu hau lortzeko, irabazleak sentsibilizazio-kanpaina bat egitea proposatu du, jardueraren eta garapenaren azalpen eta guzti.

Bigarren saria, Iñigo Izagirrek irabazi du. Proposatutako proiektuan modu erraz eta eraginkorrean energia aurreztera eta argi kutsadura gutxiago sortzera bideratutako jarduerak biltzen dira. Ekimen honen xedea da kontsumo-ohiturak aldatzea; halaber, herri administrazioaren erantzukizuna eta eredutasuna azpimarratzen ditu. Besteak beste, eraikin publiko berezien fatxadako argietan energia aurreztea proposatzen du edota foku-kopuruen intentsitatea erdira jaistea, e.a.

Jarraian lehiaketan aurkeztatutako beste ideia batzuk izendatzen dira:

- Isunen bitartez txakurren jabeei txakurren kakak biltzera bultzatzea.
- Aparkatu autoa. Industrialdeak eta udalerriak konektatzea bizikletak eta SEGWAY erabiltzeko egokitutako bideekin.
- Eskoletako ibilbideak gainbegiratzea, inolako arriskurik gabe, ikasleek eskolara zaintzailerik gabe eta oinez joan ahal izate aldera.
- Zaborretara? Hori bai ezetz. 8-15 urteko ikasleei, objektuak zabor gisa hartu aurretik berriz erabiltzen erakusteko kanpaina.
- Telazko poltsak hiritarren eskura jartzea, eguneroko erosketak egiterakoan plastikozkoen ordez erabiltzeko.
- Pasabidea eraikitzea Mutrikun, danborra eta Mutrikuko dike berriaren artean.
- Erabilitako olioa traktoreentzat berriz erabiltzea.



Bukatzeko, aurkeztutako proposamenen kalitatea eta aniztasuna azpimarratu behar dira. Mila esker parte hartu duzuen guztioi eta zorionak irabazleei. Datorren urtean beste aukera bat izango duzue, beraz hasi ideia horiek lantzen.

# Samuel Sanchez txapeldun olinpikoa Debabarrena BTT Zentroan

Udara honetan ateak zabaldu dituen gure eskualdeko Debabarrena BTT Zentroa sustatzeko asmoz, azaroaren 23an festa berezia ospatu zen Mintxetan. Bertan Euskaltel-Euskadi taldeak parte hartu zuen eta Samuel Sanchez txapeldun olinpikoa buru zuelarik.

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, 50 lagun inguruko taldeak egin zuen Mintxetako buelta bizikletaz. Txapeldun olinpikoa tropeleko buru zutela, giro ederrean burutu zuten ibilbidea bizikleta zaleek.

Euria zela eta, ondorengo festa Mintxetan egin beharrean ikastolako frontoian ospatu zen. Aterpean giro ederra sortu zen eta ia 200 lagun bildu ziren txapeldunen sinadurak jasotzeko asmoz. Euskaltelek eta Eibarko CDR bizikleta dendak emandako hainbat opari zozketatu ziren bertaratutakoen artean eta guztiek jaso zuten Euskadiko BTT Zentroen kamiseta ere.

Debabarrena BTT Zentroa BTT Euskadi Zentroen sareko Gipuzkoako zentro bakarra da eta zentroaren harrera puntua Elgoibarko Mintxeta kirolgunean dago. 14 ibilbide egiteko aukera eskaintzen du gure eskualdeko zentroak eta eskualdean barrena 7 informazio puntu daude.

Maila desberdinetako ibilbideak ditugu Debabarreneko BTT Zentroan, kolorez zailtasun mailaren arabera sailkatuak. Mendiko bizikleta zaleek ibilbideen informazio osoa aurkituko dute ondorengo webgunean: http://www.euskadibttzentroak.com.





BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Ingurumen Saila Departamento de Medio Ambiente | Udalsarea 21 | Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio | Debegesa Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartea Sociedad para el Desarrollo Económico de Debabarrena | Turismo Gipuzkoa | Euskadi

# Debabarrena ha sido galardonada en los Premios Sostenibilidad Local Udalsarea 21

El Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco y los miembros de la Red Udalsarea 21 han premiado a los municipios de Deba, Eibar, Ermua, Elgoibar, Mallabia y Mutriku en la categoría de "acciones ejemplarizantes de los ayuntamientos", por haber ejecutado la iniciativa "Revitalización de los procesos de Agenda Local 21, creación de Comités de Sostenibilidad".

A través de esta iniciativa se ha conseguido formar a las nuevas corporaciones municipales y al personal técnico de Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mutriku y Mallabia, en los compromisos, la metodología, los contenidos de sus Planes de Acción Local y las herramientas de puesta en marcha e implementación de estos planes.  Además, se ha impulsado la ejecución de los planes y se han sentado las bases para la creación y puesta en marcha de los Comités de Sostenibilidad Local, órganos municipales estables que serán los encargados de realizar el seguimiento y garantizar la ejecución de estos planes.






# Flyscharen ibilbide arrakastatsua Webgune berria

Apirilean Mutriku, Deba eta Zumaiak sinatutako akordioari esker, 3 herriek Flyscharen Ibilbidea produktu turistikoa martxan jarri zuten. Urte amaiera izaki, balorazioa egiteko ordua da.

Emaitzak oso positiboak izan dira, izan ere, 12.000 bisitari inguru baina gehiagok gozatu ahal izan dute Flyscharen Ibilbidean egin daitezken irteera desberdinez. Hamaika aukera daude, itsasoz edo mendiz, iraupen labur nahiz luzekoak... Eta dagoeneko abian da aukera hauen erakuslehio berria izango dena: **Flyscharen Ibilbidearen webgune berria** www.flysch.com. Azken hilabete honetan webgune berriak 2.000 bisitari inguru izan ditu.

Azkenaldian BECeko Natur Turismoaren azokan, Mundumiran edota Ficobako Gabonetako Azokan ere parte hartu dugu. Laster, Madrileko Turismo Azoka garrantzitsuan ere emango da ibilbidearen berri.

**www.flysch.com**

# Debegesa firma un convenio con la Agencia Vasca del Agua para recuperar y revalorizar el río Deba y sus afluentes

Este convenio de colaboración tiene como objetivo principal recopilar la información sobre el estado de los recursos naturales, patrimonio histórico artístico,  la actividad humana del río Deba y su entorno a su paso por Debabarrena. Se trata de un proyecto que responde al Plan Estratégico para el Desarrollo Sostenible de Debabarrena 2020, aprobado por los ocho Ayuntamientos de la comarca. Una de las líneas estratégicas de este plan es precisamente la recuperación y puesta en valor del río.

Fruto del análisis y diagnóstico del estado actual del río y sus afluentes se pretende establecer las pautas de uso y gestión del mismo. Como resultado de este proyecto se obtendrá un Plan de Acción integral y operativo definido y consensuado entre todos los agentes implicados.

La Agencia Vasca del Agua financiará el proyecto con 100.000 euros y lo liderará con la participación de los ocho ayuntamientos representados por Debegesa. Además, se creará una mesa de trabajo integrado por diferentes agentes implicados y expertos externos, garantizando así una visión multidisciplinar necesaria para el desarrollo de un proyecto de estas magnitudes.

Por último, se prevé que la presentación pública del plan de acción se realizará en enero del 2010. Si queréis más información podéis visitar la página web de Debegesa (www.debegesa.com).

# Debabarreneko Enpresetako Ingurumenari buruzko Jardunbide Egokien Gida BERRIA

Debegesak 2007an Kom-Ing (komunikazioa eta ingurugiroa) proiektua martxan jarri zuen udaletxe, hiritar eta enpresen artean komunikazio bide egonkor bat sortzeko helburuarekin. Proiektu honen helburu nagusia eskualdeko enpresetan aurrera eraman diren ingurumenarekin errespetagarriak diren hainbat ekimen zabaltzea da eta bide batez beste enpresek ohitura hauek bereganatu ditzatela.



Momentuz 7 enpresek parte hartu dute proiektu honetan eta bildutako informazioarekin sortu berri da Debabarreneko Enpresetako Ingurumenari buruzko Jardunbide Egokien Gida. **Danobat, Ina Rodisa, CM Lemforder TVA, Orbea, Mendaroko Ospitalea, Quimica Vasca** eta **Industrial Gol** dira enpresa partehartzaileak. Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi. Aurrerantzean, gida osatzen joatea espero dugu, enpresa hauen ekimen berriekin eta enpresa berrien partehartzearekin.

Hona hemen Gidan aurkitu ditzakezun adibide batzuk:

- Gasolioaren ordez gas naturala jartzea berogailuaren erregai gisa, $CO_2$ isurpenak gutxitzeko.
- Oinarrian disolbatzailea duten pinturen ordez, oinarrian ura dutenak erabiltzea, substantzia arriskutsuen kontsumoa murrizteko.
- Hornitzaileak bidalitako plastiko-filma berriz aprobetxatzea bilketa berrietan.
- ...

Adibide guztietan lortutako emaitzak, zifra eta guzti eskugarri dituzue **www.debegesa.com** webguneko **garapen iraunkorrerako** atalean.

# Gana una comida para 2 personas

El Dpto. de Turismo de Debegesa ha puesto en marcha una iniciativa a través del Blog de Turismo. **www.ongietorri.org** es el blog turístico comarcal que está en marcha desde este verano. Su objetivo es que entre todos/as demos a conocer nuestra comarca, sus recursos turísticos, paisajes...

**Queremos conocer cuál es tu rincón favorito de Debabarrena.** ¿Cuál es tu lugar preferido? ¿Por qué? Entre todas las personas participantes se sorteará una comida para 2 en el Restaurante Belaustegi de Elgoibar.

Las bases de la iniciativa están en **www.ongietorri.org**. ¡Entra en el blog y cuéntanos!




# Mutriku, 800 aniversario

El próximo año tendrá lugar el 800 Aniversario de la fundación de la Villa de Mutriku. Fue Alfonso VIII, Rey de Castilla, quien otorgó la Carta Puebla a la Villa. Esto hace que Mutriku sea uno de los pueblos más antiguos de Gipuzkoa y se esté preparando para celebrar sus 800 años de existencia.

Con motivo de esta conmemoración, el Ayuntamiento de Mutriku ha organizado un concurso para diseñar el logotipo del 800 aniversario. El ganador del concurso ha sido el mutrikuarra Aritz Arrizabalaga.

Por otra parte, La Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Mutriku han convocado la beca titulada La historia de Mutriku a través de sus documentos ; con el objetivo de investigar "algún tema o época de la historia de Mutriku utilizando, sobre todo, la documentación del archivo municipal". La beca, que está dirigida a expertos en historia, tiene una dotación de 4.800 euros y un periodo máximo de realización de 8 meses.

Este aniversario constituye una magnífica oportunidad para difundir los valores más relevantes de Mutriku. Consciente de la importancia de dicha efeméride, el Ayto. de Mutriku ya se ha puesto en marcha con el objetivo de elaborar un programa de actividades.



# Laburrak... ...Breves

## Mutrikuko ARBE inguruko lanak amaiturik

Tamarindoen landaketarekin amaitutzat ematen dira Arbe inguruko egokitze lanak.

Mutriku interpretatzen laguntzen duen mahai bat jarri da bertan, itsasontzi baten aurrealdea irudikatzen duena. Bertan Mutrikuren balore historiko-arkitektonikoari lotutako elementuak bildu dira, beti ere herri honek itsasoarekin duen lotura nabarmenduz.

Inguru honetan egindako lanen diseinua eta obraren koordinazioa Debegesak egin ditu eta lan honi esker Mutriku eta Debako bidea oinezkoentzat egokitzeko aurrerabide bat da.

## Elgoibarko Makina Erremintaren Museoko X. urteurrena

Abenduaren 18an Museoaren X. urteurrena ospatzeko ekitaldia izan zen Makina Erremintaren Museoan. Bertan izan zen Lehendakaria eta ekitaldi ofizialaren ondoren Museora bisitatu zuten bertaratutako guztiek. Museo honek omenaldia egiten die langile eta enpresari guztiei, baita gure herria makina-erremintaren fabrikazio eta diseinuaren erreferente bihurtu duten gainontzeko pertsonei ere. Oraindik bisitatu ez duzuonontzat, aitzakia polita da X. urteurrena bertara gerturatzeko. Webgunea ere bisita dezakezue: **www.museo-maquina-herramienta.com**

## Irakasleentzako formakuntza

Eskolako Agenda 21aren barnean, irakasleei zuzendatako bi irteera egin dira. Bat Gasteizen dagoen hiri hondakinak tratatzeko Jundizeko lantegira eta bestea Tolosan dagoen Samaniego Ikastetxe Bioklimatikora. Irteeretan irakasleek hiri hondakinen balorizazio prozesua ezagutu dute eta eraikin bioklimatiko batek gordetzen dituen sekretu guztiak ulertu dituzte. Bi irteera hauek irakasleak ikasleak ohitura ekologiko eta osasungarrietan hezitzeko behar dituzten ezagutzak lortzera zuzenduak egon dira.

## Elgoibar eta Maltzaga lotzeko bidegorria martxan

Elgoibar eta Maltzaga lotuko dituen bidegorria egiteko lehenengo tramiteak martxan daude. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatua, gutxi gora behera 1,4 milioiko aurrekontua izango du. Elgoibarko lehen bidegorriak 2,6 km izango ditu, aldapa leunak eta 3,5 metroko zabalera. Dena ongi badoa, lanak martxoan hasiko dira. Gainera, proiektu honen barnean Elgoibartik Andikano baserrirarteko argiztapenaren berritze lanak ere egingo dira.

# ¿Quieres ser más sostenible? Debegesa edita la Guía de Consumo Sostenible

"Consumo sostenible", los medios de comunicación repiten una y otra vez esta palabra, pero la cuestión es ¿cómo puedo hacer una compra sostenible? Desde enero, en la página de Debegesa podéis consultar la Guía de Consumo Sostenible. El objetivo de la guía es que sirva de referente a la hora de realizar la compra de productos alimenticios y de limpieza, considerando aspectos como el origen, tipología de envase, medio de distribución, composición, etc.

En este pequeño manual "ecológico" destinado a las familias de Debabarrena podremos descubrir la problemática socio-ambiental derivada de una compra irracional con datos tan alarmantes como estos:

- Se calcula que en la actualidad, la mayor parte de los alimentos viajan entre 2.500 y 4.000 kilómetros antes de ser consumidos, un 25% más que en 1980.
- En el Estado Español en el año 1998 existían cerca de 95 mil tiendas, mientras que en el 2004 estos establecimientos sólo llegaban a 25 mil.
- Un estudio publicado por la revista Science estima que el conjunto de las pesquerías mundiales se agotará antes del año 2048. Según otros estudios, el 90% de los grandes peces (atunes y tiburones) han desaparecido en el último siglo y cada año mueren 300.000 tortugas marinas y 250.000 cetáceos en artes de pesca.

Además podremos conocer los criterios necesarios para realizar una compra sostenible, teniendo en cuenta aspectos tan simples como estos:

- Observa la numeración impresa en los huevos y elige aquellos codificados en el primer dígito con cero o uno. Este código señala la forma de cría, así: 0 - ecológica; 1 - camperas, 2 – en suelo y 3 – en jaulas.
- Consume pescado fresco en vez de pescado congelado o ultracongelado. El pescado se clasifica, de mayor a menor frescor, "Extra, A o B" dependiendo del estado del pescado. También se puede reconocer mirando en la etiqueta la fecha y el día en que el vendedor evaluó el frescor del pescado.

Y por último, nos ayudará a buscar alternativas al consumo:

- Hacer nuestras propias conservas.
- Elaborar yogures en casa.
- Usar productos naturales para la limpieza de nuestras casas.
- Ambientadores naturales.

Visita nuestra página, www.debegesa.com y en el apartado de Desarrollo Sostenible descubrirás que con pequeños gestos podemos hacer grandes cambios.

